

# IRU ALABA

## 1963 TORIBIO ALZAGA TEATRO SARIA IRABAZIA

JOB.—Etxe oneko gizona. 70 urte inguru.

PIE

LIÑE } 40/45 urte inguruko emakumeak. Job'en alabak.

XOLE }

SIMON.—Banku bateko zuzendaria.

PERU.—16 urte inguruko mutiltoa.

LOPE.—Notario jauna.

MUNI.—Muniategi jauna. Xole'ren senarra.

### IRU ALABA

*(Job'en etxia. Aitak deituta Liñe, Pie ta Xole, iru alabak, etxian dira. Erdi-gogaituta, zer egin eztekiela, bazterrak arakutzen. Aita (Job) sofa baten exerita dago asieran.*

*Egal baten idazteko maia. Urrutizkiña mai gañean. Atzean liburutegi txiki bat. Beste egalean armario bat. Etxe txukuna, dotorea.)*

### I

PIE.—Ba'zan emen kate eder bat.

JOB.—Iru alaba be ba'ziran gurean.

PIE.—Ez al gara?

JOB.—Etxetik kanpuan. Kanpoeder.

PIE.—Saldu egin zeñdun?

JOB.—Oraindik ez dot saldu etxeko gauzarik.

XOLE.—Jakin lei nun egon leiken?

JOB.—Bigarren kontu artzalle?

XOLE.—Kontu artu ez. Jakin nai.

JOB.—Bakarrik laga ninduenak ba ete dabe orretarako eskubiderik?

PIE.—Eskubidea... ikusi bear.

JOB.—Nire gauzakin nai dodana egin neike.

LIÑE.—Alabak aztu barik.

JOB.—Alabak bai, aita?

*(Ixilunea. Aita jailti ta idazteko mai egalean jezarten da. Pie liburuei begira, Xole armarioa ikusten. Igarriko da danak be biurri dagozala.)*

XOLE.—Amaren urrezko belarritakorik be ez dot ikusten.

JOB.—Amarenak ba'ziran, aitarenak be bai.

LIÑE.—Eta alabenak.

JOB.—Alabak erosi ta eskiñiak?

XOLE.—Baña amarenak.

JOB.—Ta?

LIÑE.—Gureak.

JOB.—Nik agintzen dodanian.

PIE.—Zegaitik ez orain?

JOB.—Ba'dakizue ama nungoa zan?

LIÑE.—Ori bein entzuna ez dogu.

JOB.—Ba'dakizue ama esku uts-utsik etorri zala ezkontzara?

PIE.—Ta zer?

JOB.—Ba'dakizue etxe ta jantzi, arrio ta dote, nik, nik aurreratuak zirala?

LIÑE.—Edozein gaztek egiten dau gaur ori.

PIE.—Edozeñek beintzat.

JOB.—Ba'dakizue...

LIÑE.—*(Zoli)* Bai, bai, bai. Larogei bidar entzun doguz esan daikezuzanak.

JOB.—Ta oraindik entzuteko, bear aña.

Origaitik uste dozue zuen amarik enebala maitatu, amaren zorionik enebala billatu, amaren ondasunik enebala indartu, amaren osasunak enindula kezkatu?

PIE.—Beti negarrez ezagutu gendun.

JOB.—Ez jakon ezer falta.

LIÑE.—Etzan zorioneko.

JOB.—Isterika zan.

PIE.—Ta zu biotz zitala.

XOLE.—Isterika biurtu eragiten da bat.

LIÑE.—Ez zorionean biziten danetan.

JOB.—Zorionak gaixo geiago ekarten dau, utsune geiago bizitzan.

LIÑE.—Norbere usteak dira orreik.

PIE.—Ustea ez, naia baño.

JOB.—Zorion garraren gaitzak dira makalaldi ta larrialdi ugari.

XOLE.—Bizi eziñetik geiago sortuko dira.

LIÑE.—Itotasun geiago.

PIE.—Garratza izan zara bizi guztian.

JOB.—Ni?

XOLE.—Garratzegi, bai aita. Beti dollor.

PIE.—Beti siku.

JOB.—Eztozue sinistu nai zenbat egin dodan zuekaitik.

PIE.—Itxurei begiratu.

JOB.—Eztakizue zenbat kezka ta zenbat negar.

XOLE.—Negar eragin bai.

LIÑE.—Amari ta guri.

JOB.—Jentearen zer esanak bakarrik suspertu zaitue beti.

PIE.—Dirua etxian ta biziten ez dozu jakin.

XOLE.—Ez berak ta ez bestiei opa.

JOB.—Dirua ez da emea, alabak. Dirua kosta egiten da.

LIÑE.—Ba'dakigu.

JOB.—Ta gaitz irabazi.

XOLE.—Ekin betiko illetei.

JOB.—Eztozue sinistu nai.

LIÑE.—Ez da errez.

JOB.—Ondo jan ta ondo jantziten zinduedazalako...

PIE.—Bai, bai, azkenengo modetan.

JOB.—Ortze dago zuen min-bizia, zuen kantzerra, modetan.

LIÑE.—Modetan zure alabak? Ixo, aita, ixo.

XOLE.—Botikarion emaztiaren jantziak etzenduzen erosten ba guretzat, arek erabilli-erabilli ondoren?

JOB.—Enitzan geiago. Ten egiten zenduen, ten, egunari begira biziteko zorotasunez.

PIE.—Olako zoro-putzak giñan gu?

JOB.—Dotore irabazi-arren, zorra besterik eneban egin etxian bizi ziñen artian.

LIÑE.—Nundik ataraten zendun ba dirua?

JOB.—Zorretan. Ez uste esana bakarrik danik. Zorretan.

PIE.—Zegaitik?

JOB.—Ezkondu nitzanian ba'neukan zerbait.

XOLE.—Amona zarrak ba'ekian arrokeria aizetzen.

JOB.—Etxe jaube be ba'nitzan.

XOLE.—Gaur ez?

JOB.—Gaur? Ba'zenkie...

LIÑE.—E? Olakorik...

JOB.—Itz egitera deitu zaituet.

XOLE.—Kargak ezartera, itxuraz.

JOB.—Arro ezkondu ziñen, andiki.

PIE.—Negar asko egin ondoren.

JOB.—Erriko semerik etzenduen artu nai izan.

XOLE.—Nai ta ez erritarrei begiratu bear da?

JOB.—Askoren gaixua. Erbestean intxaur onak.

PIE.—Ta?

LIÑE.—Ezkontzatakotako erruak botako dauskuzuz gaur?

JOB.—Zure gizona kimikoa ei zan.

LIÑE.—Ez al da?

JOB.—Jokorako izan ezik bestelako entzute andirik ez da niregan eldu.

LIÑE.—Aita...!

PIE.—Mesedez, aita!

JOB.—Zuk be, Pie, ezkontza ederra egin zendun. Esana bat eta izana bi.

PIE.—Zu ala ni ezkondu giñan ori jakiteko?

JOB.—Ontzi jaubea, armadorea zan zure gizona... bankuen diruaz ta eurei erantzun eziñik.

XOLE.—Zelan batu ziñan zeu zoritxarreko egin zenduzan emakume batekin?

JOB.—Iñok ezin Iei niri olakorik bota. Gitxiago zuek.

PIE.—Ama penaz il zana ikusi gendun. Naigabez, miñez;

JOB.—Gaixoa zan... ezkontz aurretik.

XOLE.—Jakingo zendun.

JOB.—Enekien. Gizonok eztoгу emakumerik ezagutzen ezkondu aurretik.

PIE.—Gizon batzuk, izango da.

JOB.—Geienok. Danok.

Baña sekula eneutsan aitzaki ori arpegira ezarri.

LIÑE.—Ez oraingo eztenik euki be.

JOB.—Gurasoakandik artu neban ondasuna beragaz ondatu neban.

XOLE.—Jakín barik etzan geratuko ama gaixoa.

JOB.—Odol me-duna zan, bularrean be miña eukan ta arintasun aize-tsua buruan.

PIE.—Iru gaixo.

XOLE.—Ain zuzen be iru.

LIÑE.—Orain iru alaba burukomiñak sortu-arazteko.

JOB.—Beti itzal ikustean ni be itzaldu egiten nitzan, illundu, mindu.

PIE.—Itzaldu, illundu, mindu. Irutako miña.

XOLE.—Im gaixo eukazala amak? Ta etziñan konturatu iru gauza falta zitunik?

JOB.—Zer falta?

XOLE.—Iru gauzatxu baño ez. Maitasuna, dirua ta...

PIE.—Zoriona.

LIÑE.—Ori, zoriona.

XOLE.—Nik gizontasuna esango neban.

JOB.—Gizontasuna ?

XOLE.—Gizontasunik al dau norberekorra danak?

JOB.—Ez maitetasunik ta ez diru utsunerik ez eban izan.

Zoriona ez dago inorenagan, norberegana baño. Ta esan dautzuet amak gaixo asko eukazala.

XOLE.—Iru beñik-bein.

LIÑE.—Gaixoak bigunkeria bear dau.

PIE.—Etzaitugu sekula bigun ezagutu.

JOB.—Itxuran ez dago izaterik. Azaletik garratz naizela ba'dakit.

XOLE.—Egiteak ezagutzeko oraindik.

JOB.—Entzun be ez dot egin nai olako zirikadarik. Gaixo izanarren zuck ez lakoa zan ama. Etxe-zalea zan bera; zuen etxea, kalea da.

PIE.—Ori, sasoiko bizikera da.

JOB.—Ume-zalea zan ama. Zuek errez bizi nai dozue.

*(Seirak joten azten da orduaria.)*

LIÑE.—Seirak.

PIE.—Arratsaldeko seirak.

XOLE.—Illuntzekoak.

JOB.—Luze joatzuez orduak.

XOLE.—Egokera onetan alperriko.

LIÑE.—Kalterako. Baretzeko pastillarik ba'dozue?

JOB.—Nire bakartadean aspertuta bizi naiz ta nik pixkat alaitu ta bizi-tasuna emongo daustenak bear izaten dodaz.

PIE.—Zazpiretako bultzia artu nai neuke.

LIÑE.—Gaberako etxean egon bear naz.

XOLE.—Nik be...

JOB.—Seme alabak zain?

XOLE.—Zegaitik ziri ori?

JOB.—Gure odola ugaria izan da.

PIE.—Iru ordez bat izan ba'giña, obe.

JOB.—Nik naiago sei.

LIÑE.—Ta ain zuzen be irugaz gelditu. Betiko iru.

XOLE.—Len gitxi gara-ta.

JOB.—Aitarentzat batez.

PIE.—Edo geiegi. Zorrak egiteko...

JOB.—Besterik esan zeinkie?

PIE.—Bekaizkerizko itzak baño ez darabizuz.

JOB.—Bekaizkeria nik?

XOLE.—Ozpiña, binagrea baño ez.

JOB.—Lotsarik bai orrela jarduteko?

LIÑE.—Betiko biotza erakusten dozu gaur be.

JOB.—Ixo! Naiko da! Alabak zarie, alabak?

*(Telefono lirriña entzuten da.)*

LIÑE.—Niretzako izan lei.

PIE.—Nire senarra seguru asko.

XOLE.—Ene! Ez al da ezer gertatu etxian.

JOB.—*(Telefonoa artzen utzi nai-ezik)*. Geldi! Zegaitik zuentzat? Zuek bizi al zare emen?

*(Urrutizkiña artuaz)*

Nor da?

Bai, Job naiz.

Oraintxe bertan, notario jauna.

Emen gagoz, bai...

Irurak emen dira.

Ez, ez, ez dautset deitu...

Gauza onetan nire borondatea izango da lege, ez?

Bai, bai... a bertan bera laga nai dot. Ementxe, danen aurrean agertuko dot nire oraingo naia...

Ala izango da, baña legeak beti izaten ditu urterak. Bein baño sarriagotan egingo zendun antzekoren bat.

Laster arte, ba. Bai, bai, emen egongo gara.

*(Telefonoa utzi ondoren)*

JOB.—Igarri dozue?

XOLE.—Notarioa dator?

PIE.—Zetan?

JOB.—Gauzak argitzen.

LIÑE.—Zelako gauzak?

JOB.—Etxeko gora berak.

XOLE.—Zorrak?

LIÑE.—Nungo zorrak?

JOB.—Gora berak esan dot. Gora-berak.

XOLE.—Orañarie ez dozu guretzako olako konturik izan.

PIE.—Nik senarrik barik ezin nei ezer egin.

JOB.—Nik iru alaba bakarrik ezagutzen doda<sup>^</sup>. Eurak be osta osta.

LIÑE.—Ta gure gizonak.

JOB.—Zuen gizonak?

LIÑE.—Legean indarririk ez dogu eurak barik.

JOB.—Zuen lagunak izango dira. Niretzako ezer ez. Burukomiñak.

XOLE.—Nai ta ez eurak dira gure buru.

JOB.—Legeak aginduko dau baita seme-alabak gurasoei dedu ta lotsa bear dautsela be.

LIÑE.—Ta?

JOB.—Maitasuna zor dautsela.

XOLE.—Besterik iñok esan dau?

JOB.—Aitatasunaren ezaguera emon bear dautsela. Ez?

PIE.—Nok ukatu dautzu?

JOB.—(*Zorrotz*). Aintzat artu nau sekula kimikuak?

LIÑE.—Zelan jardun zeinke orretara?

JOB.—Ontzi jaubearen barri izan dot emen iñoiz, iru illabetetik bein alabaren bitartez izenpetzeko bialtzen daustazan Bankuko letren goraberetatik kanpora?

XOLE.—Zeregin larregi dabe. Astirik ezin artu.

JOB.—Gogozko dituezan gauzetarako geiegi.

XOLE.—Zer egingo dabe, ba, gizonak?

JOB.—Zer egingo daben? Besterik ezik semetasuna agertu.

PIE.—Garrazkeriak entzuteko?

LIÑE.—Betozkoa ikusteko?

JOB.—Mingañik ez eidazu labandu, ez tenik eragin, Pie.

PIE.—Esatekorik ba'zendu, etzenduke eskutuan eukiko, ez orixe, min emotekoa izan ezkeru.

JOB.—Ixi, mesedez, ixi.

XOLE.—Zegaitik? Etzara asi gure gizonak baztartuten?

JOB.—Zurerik ez dot aitatu.

XOLE.—Ez gogoaren faltaz, seguru asko. Ezer ba'zenki...

JOB.—Barrero diñot. Ez zirikatu geiago.

LIÑE.—Zirikatu biarra!

JOB.—Gain-gaiñetik txukuntzen nua, notario jauna etorri aurretik.

XOLE.—Aita, lotsa ta eskutuko barik ezin zeinke aurrez zerbait esan?

LIÑE.—Ori, zer nai dozun, zer esango dauskuzun.

PIE.—Zerbait beñik-bein, zerbait.

JOB.—Esan biar dana garaiz esango da; (*Barrura sartzen da*).

XOLE.—Nik oindixek esaten dautzuet, ezelako zorrik ez dot ezagutuko. Txori txiki batenik ere ez.

PIE.—Ez nik be.

LIÑE.—Zer esanik bez.

PIE.—Aitak ezin zeinkian bere dirutzarik eralgi.

XOLE.—Alabei emondakuagaz ez, ori ez.

LIÑE.—Nok daki zerbaitetan jokatu ete daben?

XOLE.—Boltsan jokatuta be, aspaldian ez da galtze andirik ezagutu.

PIE.—Norbaiteri emonda eukiko dau.

XOLE.—Ortik ez dator zorrik. Artzékua artzeko da.

LIÑE.—Galdutzat etsi ezik, bai.

PIE.—Guk irurok bat-batera jokatu bear genduke.

LIÑE.—Orretan gara, ez?

XOLE.—Ta notarioari agertu, ala bear izan ezkerro, ezkondu ezkeroztik eta ama il ondoren, aitak egin al izan dabena, gure baimenik barik, guri adierazi barik egiña dala.

PIE.—Zegaitik ez dautsagu deituten Olabide abogaduari?

LIÑE.—Berak dollorkeriz jokatu nai ba'dau, zegaitik guk geure aldeko indarra billatu ez?

PIE.—Olako gauzetan zurrena eta satorrena Olabide da. Aitaren diruen zati bat agindu ezkerro, seguru egon arek nun ikutu ta nun zirikatu billatuko dabela.

LIÑE.—Etxarri jaunagaz zer egin eban eztakizue?

Zorotzat ezagutu-eraztea lortu eban ta semeak geratu ziran diru jaube. Zegaitik guk antzeko bat egin ez?

XOLE.—Zorrak lepuan artu aurretik, edozer.

PIE.—Aita zorotzat artu-eraziteko, zein medikuk naiko leuke ori ba-yeztu?

XOLE.—Ez kakurik billatu. Olabideri gure guraria agertu ta beragaz konpontzen ba'gara, berak jakingo dau zelan, nun eta zeñekin dantzan egin.

LIÑE.—Ta zorrak benetako ba'litzakez?

XOLE.—Ara, eztabaida ta zalantzetan sartzen ba'gara, eztogu ezer egingo.

PIE.—Bera be zekena ta zitala izan da, bai?, ta...

XOLE.—Ikusiko genduke beintzat biar edo etzirako zetan garian.

LIÑE.—Legezkoa ete da sekula gurasoen dirurik ikusi barik, bizi guztian dollorkeriaren mende ibilli ondoren, zelan eta noiz egiñak izan leikezan gurasoen zorrak bizi guztirako norbere gain artzea?

Alabatasunik izan ete dogu orretarako?

XOLE.—Nik, bene-benetan diñot, olakorik ez dot artuko. Lenago senidetza ukatu, aitasuna ukatu. Ez ete dausku berak ainbesterako biderik zabaldu? Bereak bakarrik ete dira etxeko ondasunak?

(*Ateko tirraña entzutén da.*)

JOB.—(*Bixkor urtenaz*). Notario jauna izango da.

Geldi zuek, Neuk zabalduko dot atea.



A. ZUBIKARAY - IRU ALABA

XOLE.—Ez aldakigu orrenbesterik?

JOB.—Aspaldi aztu ziñen zuek ate onegaz. Zuen tokietan jazarri zaitze.  
(*Atea zabalduten dua.*)

SIMON.—(*Agertuaz*). Kaixo Job. Eta andereak.

JOB.—Egunon, edo arratsaldeon.

SIMON.—Bardin da, bardin.

JOB.—Ze barri?

SIMON.—Bankura deitzekotan nenguan.

JOB.—Ta? Aizea artzeko gogoagaz urten?

SIMON.—Bankeruen aize-artzeak ez ei dira ain zuzen be oxigeno eroan-  
garri bestientzat.

JOB.—Sartu, sartu... Zure etxean zagoz.  
Zer dakartzu?

SIMON.—(*Zalantza pixka bat ondoren*). Ezin geinke bakarrik itz egin?

JOB.—Irabazi onen bat erakusteko? Negozio onen bat agertzeko? Ban-  
keruak ba'dakizue negozio onak nori ta nun eskiñi.

SIMON.—Orretarako deitu egingo neutzun, deitu.

Gaur dakardana... bear ba'da ez da emen gogo-gogoko izango.

JOB.—Bankuko eskutukoren bat?

SIMON.—Zuri gibeletik ikututen dautzuna.

JOB.—Orrela dala naiago sits eta bits danak jakiteko eran agertu.

SIMON.—Eztakit... eztakit... Nik naiago neuke...

JOB.—Ez misteriorik erabili.

SIMON.—Ba... Garbi esango dautzut. Ezkerrak emoten dabena eskumak  
ez daiala jakin, esan oi da, baña zure gurea dan ezker...

JOB.—Bankuak, ostera, begi bakar, belarri motz eta mutu nai lituzke  
bere biargiñak, ez?

SIMON.—Esan nai neukena da, bankuak senitarterik be ez dabela ezagu-  
tzen barruko gora-beretan, diru-arazuetan.

JOB.—Nire baimena entzun dozu ta ez bildurtu, asi.

SIMON.—Gogoratuko zara orain urte bete inguru berreun milla pesetako  
letra bat zure izen eta firmiagaz indartu zendula zeure suin ba-  
tentzako?

JOB.—Txarto al dabiz arrasteruak?

SIMON.—Arrasteruen letrak oraindik denpora barruetan dira. Garaia  
eldu arte ez dabe areik ardurarik.

JOB.—Bestelakoren barririk ez dakit.

SIMON.—Gogoratu zaite... gogoratu...

JOB.—Ez, ez, nik ez.

SIMON.—Gogoan eukiteko besteko da mesede ori.

JOB.—Nik egiña ez dala ziur egon.

SIMON.—(*Letra bat erakutsiaz*). Etzara onegaz gogoratzen?

JOB.—Ez da nigandik urtena.

SIMON.—Ez al da au zure izenpe edo firma?

JOB.—Itxuraz ala esan lei... Baña nik ez dot sekula olakorik izenpetu.

SIMON.—Gogoan daukat. Eguerdi-eguerdi baten, zure alabaz ezkontditako Muniategi inkiñerua...

J OB.—Inkiñerotzakua.

XOLE.—Baña aita... inkiñerua bai.

SIMON.—Dana dala. Bankura etorri zan, itz egin guraz. Bosteun miila peseta nai zitun, orduan gora etorran etxeren baten parte-artzeko.

XOLE.—Nire gizonak? Sekula ez dautzat aitatzen be entzun.

SIMON.—Bankuak ixillean eukiten dakiz emondakuak eta emon bakorik sekula ez dau agertzen, andria.

JOB.—Jarraitu... jarraitu.

SIMON.—Lau egun barru etorteko eskatu neutsan.

XOLE.—Nire gizona? Beste norbaitegaz etzara ibilliko? Nun parte artzeko berak?

SIMON.—Nire ardurea Bankuko gora-beretan dago. Kalekoak etxian edo auzuan jakingo dozuz.

JOB.—Jarraitu...

SIMON.—Irugarren eguna baño len etorri zan. Nik, mingañean ulerik eztaukat-eta, garbi garbi azaldu neutsan Bankuak ez ebala bere artu-emonik ezagutzen ta ezin zeikiala olako krediturik emon.

XOLE.—Telefonoz itz egin nai neuke nire senarragaz.

JOB.—Geldi. Eukiko dozu nun itz egin.

Gogoratzen zara nik firmatu nebanik?

SIMON.—Gogoratzen naz nik esan neutsala, ainbesterik ezetz, baña zuk izenpetu gura ezkerro, berreun milla peseta beriala emongo neutsazala ta gañerakua beste baterako utziko gendula.

JOB.—Baña nik diñodana auxe da: Gogoratzen zara nik letra au izenpetu nebanik?

SIMON.—Ni gogoratzen naizena da, egun berean ekarri eustala letra au zuk izenpetuta.

JOB.—Bankeruen ardurea ez al da zeuon aurrean izenpetu eraztea?

SIMON.—Ala izan da be, akats txikia litzake ori. Danetara be zuganako nire itsutasuna agertuko leuke.

JOB.—Ba dira iru urte gitxienez nik areri agur egin dautsadala be.

XOLE.—Noiz artu dau, baña, nire gizonak diru ori?

SIMON.—Gauza onetan parkatu, baña ezin neiketzu erantzunik emon.  
Bera ta zure aita bakarrik ezagutzen dodaz, eurok izenpetutako  
agiria dalako.

JOB.—Nik ez.

SIMON.—Gogoratu soseguz.

JOB.—Ezetz.

SIMON.—Dana dala beragaz konpontzerik ez dago. Ikusi al izan dot nun-  
dik atararik ez daukala.

JOB.—Ta nik bai?

SIMON.—Etxekoak zarie danok, Job.

JOB.—Mesedez, enagizu zirikatu.

SIMON.—Bankuak erabagi bat eskatzen dau zortzi egunen barruan.

JOB.—Nik ez daukat ze erabagi.

SIMON.—Zure firmea garbi dago.

JOB.—Eztala nirea.

SIMON.—Bankuan erakutsita eta emonda daukazuaren bardin-bardiña  
da.

JOB.—Baña nirea ez.

XOLE.—(*Telefona urreratuta*). Laster garbituko dogu auzi au.

JOB.—(*Telefona eskutik kenduaz*). Geldi, mesedez.

SIMON.—Biar edo etzi sosegu obeagoaz jardungo gara.

Ba dakizu nire aldetik erreztasunak izango dozuzala. Beste le-  
traren bat zeure gain artu nai izan ezker ere... Bankuak zure-  
gazko artu-emonak zindotzat dauka.

JOB.—Nire artu-emonak garbi ta zintzo erabilli dodaz beti. Alegindu be  
bai orretan.

Baña oraingo au ez da nirea.

SIMON.—Bankuarentzat bai.

JOB.—Ori garaiz ikusiko da.

SIMON.—Ainbat lasterren, zortzi egunen buruan, Bankuan ikusi nai zai-  
tut, Job. Agur danoi. (*Beyoa*).

XOLE.—Nik ez dot sinistuten. Asmakizunen bat dabil emen.

LIÑE.—Deitu, deitu gizonari ta garbitu.

JOB.—Nik sinistu nai ez, baña sinistu bear. Sinistu bear...

(*Mai gañean makurtzen da.*)

XOLE.—(*Telefonoan markatzen asten da. Job'ek barrero gogor kenduaz*).

JOB.—Ezetz agindu dautzut.

XOLE.—Zegaitik ez? Gauzak jakiteak koldartu egiten zaitu?

JOB.—Arpegiko azalak ez dira zurbiltzen telefonoz itzegiten. Loditu egi-  
ten dira, arrotu.

LIÑE.—Baña, aita...

JOB.—Gizonei aña erru ezarten dautzuet, senarrei baño geiago.

XOLE.—Guri?

PIE.—Gure gain egurrak?

JOB.—Danori. Zuri, orreri ta ari. Irurori. Danori.

Zoro bizi nai dozue, amesetan.

Zuentzako ez dago ez gurasorik, ez aitarik.

Aize gangar lez zabize. Ta etzarie konturatzen kristalezko mundu argal baten bizi zariela, lenengo ikutuan zartiatu ta birrinduta geratzen dan kristalezko mundo zoro ta guzurti baten sartuta zagozela. Urteak urte zoro-zoro, ustel-ustel.

LIÑE.—Notarioa etorteko da?

JOB.—Zetan? Danon lotsagarri? Izenik ez dauken egitada zikin onein agiriak artzen? Ez da etorriko ez. (*Telefonoz deika.*)

Notario jaunaren etxea?

Or dago?

Urten dabela? Ba dakizu nora?

Job naiz.

Onera? Urtena ba'da, ezer ez. Agur, agur.

XOLE.—Notarioa etorri aurretik nire gizonagaz itz egin nai neuke. Bera billatu nai neuke.

JOB.—Billatu? Ezkonduta daroazuzan ogei urtetan ez al dozu ikasi edo igarri bere bizibiderik?

PIE.—Zegaitik orrenbeste ezezko beragaz itz egiteko?

XOLE.—Arazo onetan garbi ez dagon zerbaít dagoneko susmoa erakusten dozu zure ezezko orregaz.

JOB.—(*Garratz*). Enazu ezagutzen, Xole?

LIÑE.—Alaxedata...

XOLE.—Beragaz itz egin barik ez dot ezer sinistuko.

PIE.—Nik be eneuke sinistuko.

JOB.—Nik, zoritxarrez, sinistuta daukat.

Baña naizena naizenez esaten dautzut. Bankuak eskintzen daustazan zortzi egun oneitan, inkiñerotzan baño zertzelada geiago agertu biarko dituz, ez nire aurrean bakarrik, askoren agirian baño, gizon... lapur orrek.

XOLE.—Aita...!

JOB.—Lapurra bai, la-pu-rra. Orixe lotsagarriena. Len guzurtizat neukan, sasi-inkiñerua baño izan ez dalako, sekula lortu bako titulu bate-

gaz atzipetu zinduzalako ezkontzarako; orain... lapurtzat. Bere aitaren lapurtzat.

*(Ateko tirriña).*

Notarioa...

Zelako giroaz, zelako arpegi eta lotsaz itz egingo dogu beragaz?

*(Atea zabaltzen dau ta Peru, amasei urte inguruko mutiltxoa agertzen da).*

PERU.—Egunon.

JOB.—Zer?

PERU.—Atzo be etorri nintzan.

JOB.—Eztakit.

PERU.—Etzendudazan etxean aurkitu.

JOB.—Egon da ere... esan neutzun geiago ez etorteko.

PERU.—Amak diño ezin dala bizi.

JOB.—Bestiok be obe genduke ez bizi.

PERU.—Ama gaixorik dago.

JOB.—Noiz ez?

PERU.—Benetan. Osagilleagaz dabil.

JOB.—Beste asko premiñan gagoz.

PERU.—Txarto dago. Bai, txarto.

JOB.—Nok esan dautzu? Osagilleak?

PERU.—Ez. Abade batek.

JOB.—Ta?

PERU.—Milla peseta nai lituzke amak, jauna.

LIÑE.—Zein da emakume ori?

JOB.—Gaur ezin emon neikioz.

PERU.—Nai ta ez bear dituz.

Botikarioak ez dautsa botikarik emon nai diru barik. Ta miñei ezin eutsita dabil.

Osagillea be gogo alperrez etorten da.

Nai ta ez bear dituz.

JOB.—Ezin nei, ezin.

PERU.—Ba dakit al dozuna. Amak be ba daki. Orañarte emon izan dautsazuz.

JOB.—Amaitu neban beragazko tratua.

LIÑE.—Ze tratu?

PERU.—Jauna, nik ba dakit ama ilgo dana.

Ni biziko naz an edo emen. Baña bera il arte, bera il arte...

LIÑE.—Ain zuzen be gurean bakarrik billatu bear dozu laguntza ori?

PERU.—Ez ukatu, jauna. Ba'dakizu amak beti biotz ona agertu izan dautzula. Jauna, berak esan daust agur egiteko, eskerrak emetoko, geiago ezjala biziko-ta.

Baña, jauna, gaur neu nator eskatzen. Ezin neike ama animala bat lez ilten ikusi... eta ilgo da. Gaur neuk eskatzeu dautzut... ama il ondoren egingo dodan lanagaz ordaintzekotan.

JOB.—Tori eun peseta.

XOLE.—Aita, eun peseta eskale bateri?

LIÑE.—Gugaz eztozu sekula olako ugaritasunik agertu.

PERU.—Eun pesetakin ez dot ezer egiten. Botikatan bakarrik laureun peseta zor doguz.

Jauna, ama ilten ba'da, neuk biurtuko dautzudaz. Neu aziko naz lanian. Ta ekarriko dautzudaz. Emoidazuz milla peseta.

XOLE.—Ain eskuzabalak billatzekotan jo beste amar ate. Laster batuko dozuz.

PERU.—Aterik ate eta eskale ibilten diranak lapur eta maltzur biurtzen ei dira.

Nire amak ez dau olakorik ikusi nai nigan.

XOLE.—Errezago bateri biotza ikutu ta urratu, ez?

JOB.—Ixildu zaite, Xole.

LIÑE.—Zegaitik ixildu?

JOB.—Ume au ezagutzen dot. Badakit bere jokabidea zelakoa dan. Ba'dakit bere zintzotasuna zenbatekoa dan.

XOLE.—Alabena baño obeto.

JOB.—Alabak euren senarrena baño ziatzago.

*(Notarioa agertzen da atian).*

Sartu, sartu notario jauna.

Unetxo bat. Pitin bat. Exeri, exeri...

*(Peru'ri)* Benetan gaixorik dago ama?

PERU.—Ez ba'lego enitzan etorriko.

JOB.—Zein osagille da beregana juaten dana?

PERU.—Bastoiagaz ibiltzen dana.

JOB.—Don Martin?

*(Telefonoa artuta).*

Don Martin?...

Job naiz.

Emakume baten barri jakin nai neuke. Semetxu bategaz bizi da, erreka onduan.

Bai... bai...

Benetan gaixorik dago?... Ainbestetan? Urtekerarik ez?...

Gaur dagon eran ez?...

Eta ezin lei ezer egin bere alde?

XOLE.—Aita, baña zer dozu emakume orregaz?

JOB.—Itxi baketan.

Ta operaziño ori egin ezker?\_\_

Jauna, mesede bat eskatuko dautzut. Emakume ori klinikara eruan eta ezer al ba'da, egin al dana bere alde.

Bai, bai... Bere kostu guztia nire gain izango da. Nik jasoko dodaz orko gastuak...

Ainbat lasterren, bai... bai... eskerrik asko.

LIÑE.—Zoratuta al zagoz, aita?

PIE.—Notario jauna, gauz onetan ezin lei ezer erabagi? Ezin lei zoro-tasun au eragotzi?

XOLE.—Zorrak erakustekotan ez gaituzu deitu? Zor barri au orain?

JOB.—Notario jauna, eragozpenik egon ete lei nik neure kontzientzian premiña-premiñazkua dan laguntza bat beste bateri eskintzeko?

NOTARIOA.—Zure buruaren jaube uste zaitut.

XOLE.—Orregaz, aita, guk sekula jakin ez dogun zerbait adierazoten daukuzu. Guk sekula pentsatuko ez gendun ixilléko maitasunen bat agertzen dozu.

JOB.—(*Garratz*). Xole! Aita naz...! Zure berbak nire biotza urratu egi-ten dabe.

Ogei urte inguru dira ezkondu ziñala.

Sekula ez dautzut zirikada bat bakarra arpegira bota. Asko jaki-ñarren irunsi egin izan dot zu ikusiaz barriztuten jatan min garratza. Baña gauzak onetara eldu diran ezker, notario jaunaren aurrean esango dautzut, eta argi esan be danok jakin dagi-zuen... (*negarrari ezin eutsita*)... noiz ilgo dagon emakume koi-tada ori... zure senarrak 'zu baño lenago ezagutu ebala... ta zu baño lenago makurtu ebala... Aurrean dagon mutiltxu au bien odolekoa da... maitekeri lotsagarri baten frutua...

XOLE.—(*Negarrez, zarataka*). Aita! Aita! Ezin lei, ezin... Guzurra da... Asmakizun lotsagarri bat... (*Bere aizten inguruan negarrez 16-tzen da*).

JOB.—(*Peru'ri*). Mutil! Juan zaite arin amaren ondora. Medikua lastef juango da beregana.

Tori milla peseta, amaren zorrak ordaindu daizuzan. Al dan guztia egingo da bere alde.

Ta biar edo etzi...

PERU.—Neuk irabaziko dot, jauna. Neuk ekarriko dautzudaz. Eskerrak.  
 JOB.—Oraingoak ez.

Ta biar edo etzi (*esan nai leuken zerbait ezin esanik*) ...enien  
 izango dozu zure etxea.

(*Pie ta Liñe zer esan ez dakiela igarriko dira. Xole negarrez. Job  
 eta Peru besarkatuten dira, notario jauna buruagaz errukia ager-  
 tzen ezagutuko dalarik.*)

OYALA.

## II EKITALDIA

(*Lengo etxean. Job eta Peru etxean sartu barriak dira, onen  
 amaren obiratzea egin ondoren.*)

PERU.—Ederra izan da amak il-kaja gañean eruan daben koroia.

JOB.—Enaz konturatu.

PERU.—Zuk bialdua izan da?

JOB.—Nik ez. Nik egitezko koroiak nai dodaz, zimeltzen diran lorazkoak  
 barik.

PERU.—Zeñek bialdu ete dau?

JOB.—Ez orretan bururik nekatu. Edozein lotsagabek. Lotsagaberik an-  
 dienak bialtzen dituez koroiak il ondoren.

PERU.—Ezaugarriren bat eukiko dabe.

JOB.—Geienetan arrokeria. Batzutan maitekeria. Askotan lizunkeria. Li-  
 zunkeri askoren atsa. Loren usaiñak bigundu ta gozotuko ba'lebe  
 lez.

Konturatzen zara zer agertu nai dodan?

PERU.—Benetan, ez.

JOB.—Obe. Zenbat urte daukazuz?

PERU.—Amasei edo.

JOB.—Enitzake ain gordin mintzatu bear.

Maitasuna zer dan ba'dakizu?

PERU.—Neskakin ibiltea? Neskak irri egiten dauste sarri ta lotsatuta  
 iges eragin.

JOB.—Zuk ez dautsezu neskei koroirik eskiñiko.

PERU.—Zenbat balioko eban koroï arek?

JOB.—Zetarako?



PERIL.—Saltzeko.

JOB.—Itxi egiozu zimeltzen.

PERU.—Zuregazko zorra ordaindu nai neuke.

JOB.—Eskatzen dana lorra izaten da, zorra baño geiago. Maitasunez edo karidadez emoten dana, ez zorra ta ez lorra.

PERU.—Nik ez daukat orain amarik. Niretzako lain edo geiago irabaziko neuke laster. Emotekuak laster osotu ezkeror arpegi obeagoaz ikusiko ninduke.

JOB.—Ba'dakizu amaren zorrik?

PERU.—Ementxe bakarrik.

JOB.—Emen ez daukazu emotekorik.

Nire emaztiak zurelako seme bat eskatzen eban. Iru alaba bakarrik euki genduzen.

Zure antzera, mutillak ikustean iges egiri izan ba'lebe nire alabak, ogei urte gazteago izango nitzan gaur.

PERU.—Noiz amaituten da gaztetasuna?

JOB.—Elitzake amaitu bear. Larogei urteduna gazte gordin ta guri zaindu lei.

PERU.—Koroi-a...

JOB.—Usteltzen laga egiozu, len be usteldutako biotzen batek eskiña izan leike-ta.

PERU.—Nire aitarena izan ete da?

JOB.—Izentatu eutzun amak nor dan?

PERU.—Ez.

JOB.—Zentzuna agertu dautzu amak orretan.

PERU.—Ba'dakizu zeuk nor dan?

JOB.—Aitatasunik agertzen ez dabén aítá, jaior bear ez eban izakia da. Atsegin izango jatzu etxe onetan bizitzea?

PERU.—Zegaitik esan dautsazu len alaba bateri bera baño lenago ezagutu ebalá nire ama... zeñek?

JOB.—Kezkatu egin zaitu orrek?

PERU.—Len be gogoratu naz.

JOB.—Ezaupide asko artzen dira munduan.

PERU.—Emen bizi bear naz?

JOB.—Txarto deritxazu?

PERU.—Zeu zara nire aita, ala?

JOB.—Ez. Zuk lau urte inguru zenduzala ezagutu neban zure ama.

PERU.—Zegaitik bialtzen nenduan beti onera diru billa?

*m*

JOB.—Egunen baten dana jakin ziñei. Oraindik ez. Etxe onetan ez jatzu ezer faltako.

Ordain bakarra eskatuko dautzut: zintzotasuna.

*(Tirriña entzuten da).*

PERU.—Atea zabalduko dot?

JOB.—Ez telefonoa da. *(Telefonoz izketan).*

Zein? Zein?

Ez da ezer entzuten. Zein? Zein?

A? Simon? Bai, bai...

II dan emakume bateri laguntzen izan naiz.

Senidea ez, ezaguna.

Gaur dirala bederatzi egun? Ta? ...Bai ta?

Ez... ez... Nik ez... Nai dana, baña nire gain ez.

Bai... bai... Ni lengoan nago.

Nai dana egin, baña nik...

Baña gizona, ez dautzut esaten ez dala nire firmea?

Nik ez... ez...! *(Telefonoa asarre lagaten dau).*

*(Sofan jezarten da, burua makur, ixilik. Peru'k ez daki zer egin.)*

*(Tirriña.)*

PERU.—Barrero telefonoa.

JOB.—Ez. Nire gelako esnagarri edo despertadora da. Oker ipinita, itxuraz.

PERU.—Ain berandu jaikitzen zara?

JOB.—Zeu noiz esnatzen zara?

PERU.—Eztakit. Txoriakin batera.

JOB.—Emendik txori kantu gitxi entzuten da.

PERU.—Egunagaz batera.

JOB.—Leyo bikotxa izango dozu, argiak lotarako kalterik ez daizuen egin.

PERU.—Ez txoririk eta ez eguzkirik?

*(Tirriña).*

Telefonoa ala despertadora oraingotan?

JOB.—Atea.

PERU.—Atea? Zabalduko dot?

JOB.—Erakutsiko dautzut aurrerantzerako.

*(Atea zabalduz).*

Oi! Lope jauna?

LOPE.—Egunon. Uste gabeko ikustaldia, ez?

JOB.—Alaxe, notario jauna.

LOPE.—*(Peru'gaitik).* Illobaren bat?

JOB.—Illoba? Gurean ezkondu aurretik antzutu ziran. Etzenkien?

Baña etxekotzat daukat. Bere amari illobira lagunduta etorri gara.

LOPE.—Senitartekoren bat?

JOB.—Notarioen nortasuna ez al da entzun ta ixilik egotea?

LOPE.—Zoli jaiki zara goizetik.

Itz egin geinke?

JOB.—Entzuteko nago.

Baña jezarri, aurrez, jezarri.

LOPE.—Aspaldiko adizkide baten karta bat artu dot. Eskola-lagun izan zan. Mexikon dago lege gizon. Eli Bidarte.

PERU.—Nire ama be Bidarte zan. Ni be bai.

LOPE.—Zein dozu lenengoa?

PERU.—Amak eta nik abizen bardiña dogu.

LOPE.—Aaa...!

Nun jaio ziñan?

PERU.—Eztakit.

LOPE.—Ta ama?

PERU.—Gogoratu be ez jatan egin sekula galdetzerik.

JOB.—Poliziko egin al zaitue?

LOPE.—Eztozu entzun iñoiz notarioak satorrak izaten garanik?

Amaren seniderik ezagutzen dozu?

PERU.—Zelako senideak?

LOPE.—Anaiak, edo osabak, edo lengusuak, edo...

PERU.—Eztakit. Beartsuak ez dabela eukiten seniderik esaten eban.

LOPE.—Zetatik bizi zan?

JOB.—Bestien antzera. Al ebanetik, ez?

PERU.—Alaxe, jauna.

LOPE.—Eta... amagaz bizi ziñanean...

JOB.—Nigaz itz egiten ez zara ba etorri?

LOPE.—Parkatu.

Zigarroak aztu jataz. Ba dakit erreten ez dozuna, Job. Ekarriko zendukez estankutik, mutiko?

PERU.—Poz pozik.

LOPE.—(*Dirua emonaz*). Chester eskatu.

PERU.—Eztabe pentsatuko niretzat diranik?

LOPE.—Gizonak oker pentsatera oituak gara. Baña ez bildurdu.

(*Peru beyoa*).

Mutil auxe izan lei billatzen nabillena.

**JOB.**—Gertatu lei,

Atzo il jakon ama. Gaur obiratu. Bera ta ni bakarrik jua gara.  
Ez dot uste seniderik daukanik emen ingurutun.

Bakarrik geratzen da. Ni be erdi bakarrik nago. Origaitik orain-  
txe bertan etxera ekarri dot. Ninerik ez dautsat ukatuko, zintzua  
ba'da.

**LOPE.**—Susane zan amaren izena?

**JOB.**—Berbera.

*(Lope ate ondora doa ia mutilla an ete dagon ikusten).*

**LOPE.**—Oraindik gaitzik bako mutilla da. Bestela emen egongo zan  
jakin miñez.

**JOB.**—Mutil ona dirudi.

Amaika jazan dau orren amak. Errukia artu neutsan lenengotatik.  
Ba dira emakumeak bein jausi ta betiko ondatzen diranak.

Beste batzuk bein jausi ta geiago okertuko elitzakezanak. Azke-  
netakoa zan onen ama.

Ziur nago bein baño geiagotan jausi etzana, gaixoa. Nire sendia-  
ren ondamentirako sartu jakun gizon maltzur baten maitekeriz  
ondatu be.

**LOPE.**—Aitatasuna ukatu egin eutsan?

**JOB.**—Eskiñi ere ez, seguru asko. Arduratu ere ez. Nire ustez obeto baño  
ez onela gelditzean, naita demoniñua aingerurik zuzenena lez  
nire alabetara urreratu.

**LOPE.**—Ogei milla peseta bialtzen ditu bere anaiak Susane'ren lenengo  
laguntasunerako. Nunbaitetik jakin dau txarto egoala.

**JOB.**—Ogei milla peseta?

Notario jauna, biotzez diñotzut, naiago neban barri ori jakin ez.

**LOPE.**—Jakiteak ez dakar kalterik.

**JOB.**—Oraingoan bai.

**LOPE.**—Job...

**JOB.**—Zerbait egih nai neban mutil onen alde.

Gurean ikusten diran lizunkerik, garrakerik ta zabarkerien ordez,  
zerbait nai neban.

Lotsagarri déritxat alaben bizitza gurasoen diruei begira.

Ba'dakit nire ondasunak urte gitxiren barruan amaituko dirala  
ta zabarkerietarako, arrokerirako, alperkeria gizenduteko amaitu  
be. Orixe da nire min bizia.

**LOPE.**—Danok daukaguz arantzak.

JOB.—Gau asko galdu dodaz orren gomutaz. Pozik jaiki naz gaur nire asmua bete gurarik. Baña orain... beste zerbaitetan pentsatu bear-ko dot. Dirua bitarteko dala ez dagokit mutilla etxean artzerik. Nire egitada au elitzake biotzekua izango.

LOPE.—Benetan be zure etxian artu nai dozu mutil au?

JOB.—Artutzat daukat gaurtik. Bera pozik ba'da, emen izatekotan.

LOPE.—Ta gerorako?

JOB.—Nai ba'dau, betiko.

LOPE.—Ondasunei buruz diñot.

JOB.—Alabekin lotuten al nau legeak?

LOPE.—Legeak eta gizatasunak.

JOB.—Eta alabak ez?

LOPE.—Bardin.

JOB.—Ikusten dozu. Bakarrik bizi naz.

LOPE.—Borondatez.

JOB.—Penaz biziteko borondaterik ez da egoten.

LOPE.—Zegaitik ez zuaz alaben etxetara?

JOB.—Eurentzako beste gizaldi bateko gizon naskagarria naz.

(*Tirriña*).

Parkatu. (*Atea zabalduaz*).

PERU.—(*Sartuaz*). Begitankorra da estankerua.

JOB.—Zer ba?

PERU.—Chester eskatu ta beste zerbait emon nai. Enago dotore, ala?

LOPE.—Ezagun dozuz zigarro markak?

PERU.—Nik ez dot erreten, baña iñoiz entzun bai.

Nungua naizen, zeñentzako diran ta...

JOB.—Ezagutu arte.

PERU.—Gizon bi datoz gora. Asarre. Alkar joko eben bildur etorri naz.

Emen datoz.

SIMON.—(*Ate kanpotik*). Sartu leike?

LOPE.—Ni ba'nua. Itz egingo dogu astiz.

JOB.—Naiago zaitut bertan ikusi.

SIMON.—(*Sartuez*). Sartu leike?

JOB.—(*Muni ikusi ondoren*). Nire etxea zabalik dago beti, baña ez lapurrentzat.

MUNI.—Zeñentzako da zirrikada ori?

JOB.—Zeuk jaso dozu?

MUNI.—Gauzak argitu bear dira.

JOB.—Argiegi dagoz.

MUNI.—Izketan konpontzen dira gizonak.

JOB.—Garai oberik egonda itz egiteko. Premiña andiagorik ere bai.

MUNI.—Alabaren dotetik ezin neikian etxearen aurrerapiderako zerbeit ikutu?

JOB.—Dote barik ezkondu al zan alaba?

MUNI.—Dotea? Uzkeri a dotetzat?

JOB.—Lau zati egin nituzen nire ondasunak. Alaba bakoitzari berea emon ta laugarrena niretzat. Gaizki jokatu al neban?

LOPE.—Orrela dala, zintzoegi.

JOB.—Garbi jokatu zendun zeuk alabari maitasuna eskatzian?

SIMON.—Job, etxeko gora bera ta autuak baztertu ta...

JOB.—Sustraitik agertu bear dira kontuak. Sustraitik azten da arbola.

SIMON.—Guk ez daukagu zetan jakin.

JOB.—Gizonak argaltasun bat euki lei.

MUNI.—Nor da ain bakoa?

JOB.—Lotsagabe...! Bat bakarra parkatzen dakit. Gizon guztiok jakin bear genduke bat bakarra parkatzen.

LOPE.—Parkatu bakarrik ez. Lagundu, lagundu jaso ta zintzotuten.

JOB.—Alaxe da.

SIMON.—Asarre jarteakin ez dogu ezer lortuko.

JOB.—Zuekin ez. Ba'dakit. Diruaren biotza dozeue zuek, sentimentu bako biotza. Dirua ta irabaziak, irabaziak eta dirua. Eztakizue besterik. Baiña diruak ez dau zuzenduten mundurik. Diruak ez dau lortuten zorionik. Diruak ez dau lorik zaintzen. Diruak ez dakar bakterik, eztakar osasunik.

LOPE.—Bear ba da enago emen nire tokian. Darabiltzuen auzirako al perrik nago.

JOB.—Ez, notario jauna. Egon geldi.

Biotzik bako erregea da dirua. Azur eta mamiñik bakoa. Zitala ta ustela.

SIMON.—Nire ustez letra au garbi dago. Muniategi inkiñeruari...

JOB.—Sasi-inkiñeruari.

MUNI.—Ba'dakit aintzat enazula artzen. Oker zabiz. Nire tituloa daukat. Eta nortasuna.

JOB.—Nun lortuta?

MUNI.—Lovaina'n.

JOB.—Firmak bardintzen eta guzurtatzen izan bear zenduke tituloa, baña lotsagarrizkoa.

MUNI.—Notario jauna, nire aitaren zitalkeriaz konturatu zaitte. Notario lez esku artu daizula eskatzen dautzut.

**JOB.**—Alaxe da baita nire guraria be.

Lovaina'ko inkiñerua zara? Benetan?

**MUNI.**—Eztaukat ukatzeko.

**JOB.**—(*Kutxa batetik agiri bat atara ta emonaz*).

Eutsi, notario jauna, Artu, ona emen Lovaina'ko erretore jaunaren agiri bat.

**MUNI.**—Nire garaiko erretorea lurpean dago aspaldi.

**JOB.**—Erretoretzak jarraitzen dau, orraitik. Liburuak betiko dira, erretore bat il edo bestea bizi.

Irakurri nai dozu, mesedez?

**LOPE.**—Lovaina'ko Erretore nagusi lez agertzen dot. Ikastetxe Nagusi onetako liburuak aztertu ondoren, argi dago Muniategi ikaslea iru urtetan emen ikasle egon zala. Examiñetako agirietatik ikusten danez, iru urte orreitan urte bakar bat osotzea lortu eban.

**MUNI.**—Nire arerioresen bateri ataratako guzurrezko agiria da ori, zeuk egiña ez ba'da.

**JOB.**—Zure antzeko dirala uste, besteak? Ez dauka Lovaina'ko sellurik?

**LOPE.**—Erretorearena eta idazkariarena.

**MUNI.**—Berrogetamar be euki leiz.

**JOB.**—Ez da bitartekorik egon emen. Ezkondu ziñanean neuk eskatu neban, arrokeri aizeak ikututa, neure gela onetan ipinteko asmotan.

**SIMON.**—Eguerdia baño len nire arazua erabagi nai neuke.

**JOB.**—Geiago dodaz nik erabagiteko. (*Peru gaitik*). Ikusten mutÍKO au? Ez al dautzu ezer gogoratuten?

**MUNI.**—Eztaukat zetan ezagutu.

**JOB.**—Ez? Ez? Olako mutil batek ez dautzu sentimenturik biztuten?

**MUNI.**—Zegaitik?

**JOB.**—Itotera nua esan daikedana.

**SIMON.**—Jo daigun gurera. Muniategi inkiñeruak...

**JOB.**—Sasi-inkiñerua esan dot.

**SIMON.**—Muniategi jaunak Bankutik dirua atara eban, jakingo zenedez.

**JOB.**—Gastatu arte ez dot usaiñik artu.

**SIMON.**—Bankuak iru lau aldiz deitu dautsa. Egunak emon be bai. Ezin eldu da ordaintzera. Zugan uste eban. Ez ei dau artu zugandik itxaro ebanik.

**JOB.**—Ezta artuko be. Zer itxaron lei?

**SIMON.**—Ori alde batera lagata, letra au zuk bayeztua da, zuk indartua, ta ezer jasotekotan erantzun bear dabena zeu zara, Job.

JOB.—Zegaitik?

SIMON.—Ba'dakizu olako firmak zetara heartzen daben.

JOB.—Nire itzak ez al dabe indarririk?

SIMON.—Ba'dakizu zeuk izenpetua dala.

JOB.—Etzaitut nai entzun orrela jarduten.

SIMON.—Agirian dago, Job.

JOB.—Arpegi bidun gizona naizela uste dozu?

SIMON.—(*Muni'ri*). Ez eban berak firmatu?

MUNI.—Ez al da ezagutzen bere firmea?

JOB.—Notario jauna, nik izenpetu ez dodan letra bat ordaintzeko beartasunik ba al dot?

SIMON.—Zure firma agirian dagola, Job. Ez ukatzen sayatu.

JOB.—Ez dala nirea.

Zeñek agertu ta sinistu erazi lei niri nirea danik? Buru galdutzat etsiten nazue?

(*Simon'eri*). Zeuk ikusi ninduzun izenpetzen?

LOPE.—Ez al zan zure eginbearra firma ori zeuk eskatzia?

SIMON.—Bai.

LOPE.—Ta?

SIMON.—Beste askotan lez konfiantzaz jokatu neban.

JOB.—Oraingotan enaz makurtuko. Enaz bigunduko.

LOPE.—Agertu al izango dozu zurea ez dana?

JOB.—Agertu al izango ete daust onek nirea dala?

SIMON.—Bankuak epaitegira jo bearko dau ta enbargua eskahi.

JOB.—Zeñen aurka?

SIMON.—Ikusiko dogu. Legeak esango dau.

JOB.—Zuentzako dan Igeak ez ete dau nitzako indarririk eukiko?

Legetik nai gizontasunetik jokatu ziñei. Baimena dozu.

SIMON.—Zer etorri leikenaz konturatu zaitte, Job. Etxeko kalterik ez aztu, Orretan asi ezker...

JOB.—Ez nau ezek atzeratuko.

SIMON.—Edozetara be zure alabaren senarra dala gogoratu. Mingarri da, baña... Era onetan, legea ikusiko dogu, legea. Legeak asierarik dirua eskatuko dabela jakin. Ta dirua eruatzen amaitu.

JOB.—Niri beste gertatu lei zueri.

MUNI.—Nik eztaukat ezer.

JOB.—Ezetz? Azur galantak kartzelan biguntzeko.

(*Simon eta Muni beyoaz*).

LOPE.—Zartzara gogortzen zuaz, Job.

JOB.—Azurrak lez. Ta oraindik gogortzeko.



PERU.—(*Bildur*). Egunero onela bizi zarie emen?

JOB.—Laster ebagiko doguz bedar gaiztoak, Peru.

Ementxe biziko zara. Esan dautzut len be. Ez dautzut ezer eskatuko.

Zintzotasuna bakar bakarrik. Zintzotasuna.

LOPE.—Job... ta len aitatu dogun arazoa?

JOB.—Buru ori aztertu egizu pixkat Mexiko'ko osabaren gogua ta nire asmuak alkartzeko. Olako itxaropen barik lagundu izan dautsat mutil onen amari. Beraren errukiz eta mutil au bere maitasunean ikusteagaitik. Ama il jako. Bakarrik ez da geratuko orraitik. Bizi naizen artean nigaz euki nai dodala agertu egiuzu.

PERU.—Gizon ori barriz etorteko da?

JOB.—Bildurtu egin zaitu?

PERU.—Eneuke nai olako baten seme izan!

OYALA.

### III. EKITALDIA

(*Lengo etxean, Pie, Liñe, Xole eta Job. Alabak aita zuritu nairik.*)

LIÑE.—Gaixo zagozala esan dauskue.

JOB.—Noiztik nire alabak nire kezkaz?

PIE.—Osategiren baterako asmoa dozula.

JOB.—Geroko barri eztakit.

XOLE.—Ez da arrigarri, izan be, zure adiñean olako makalaldiak eukitea.

JOB.—Edozein adiñetan egoten dira makal-aldi ta bera-aldiak.

XOLE.—Zaindu egin bear.

PIE.—Zaindu bai, osasunaz arduratu.

JOB.—Geiegi zaintzen gara.

LIÑE.—Benetan be obeto egongo zara osategi baten.

XOLE.—Obeto ártuko zaitue.

PIE.—Etxean eztaukazu iñor.

JOB.—Ezetz? Iñoiz bafio obeto nago. Laguntasuna ta maitasuna falta barik.

PIE.—Mutiko baten laguntasuna? Aren maitasuna?

LIÑE.—Ori ez da etxeko.

JOB.—Zuen besteko.

LIÑE.—Gu beste?

JOB.—Ez arritu. Bai, bai, zuek aña.

PIE.—Gu aña?

JOB.—Geiago.

PIE.—Aita!

XOLE.—Zeñek sinistu ori?

PIE.—Guretzat lotsagarri Htzake.

JOB.—Aurrez lotsagarriago laga ninduzuen.

XOLE.—Zorakeriak dira orreik. Maitekeriak eragiten dautzuzan uste eta bigunkeri zimelak.

JOB.—Usteak ez dabe miñik emoten.

LIÑE.—Sarritan egiteak baño geiago.

JOB.—Oraindik sorbalda gañean daukat burua.

PIE.—Beste askoren antzera, baño osagille premiñan egoten dira.

JOB.—Alabak... eskerrak zuen ardureari. Ez dot uste oraindik ainbesteko gaixo nagonik.

(*Jaikiaz*). Gaurko naiko da, ez? Atea nun dan ba'dakizue.

LIÑE.—Atea?

XOLE.—Zentzunean zagoz, aita?

PIE.—Etxetik kanpora atara nai gaituzu?

JOB.—Bakarrik egoteko gogua sartu jat.

XOLE.—Ez gara juango.

JOB.—Len etziñen juan?

XOLE.—Gure etxetik kanpora bota gu?

JOB.—Bakartadea maitatuten zeuek erakutsi daustazue.

Lagun txarrekin baño bakarrik ez al da obeto biziten?

LIÑE.—Mindu egiten gaituzu. Naigabetu.

PIE.—Ez gara juango.

XOLE.—Ez beintzat.

JOB.—Eztaukazue gaur iñor zai? Eztaukazue guatekerik?

PIE.—Gure zeregiña ementxe dago.

JOB.—Emen? Gaur ez.

XOLE.—Zegaitik ez?

JOB.—Atea zabalik dagola entzun dozue.

PIE.—Sartzeko izango da.

JOB.—Bai? Ta ni urteteko, ez? (*Job, arro arro, sukaldera sartzan da*).

PIE.—Gordin dago oraindik.

LIÑE.—Burukomin ugari ekarteko eran.

XOLE.—Zegaitik?

LIÑE.—Zeñek lortu ori makurtutea?

PIE.—Gu ez giñake onetan sartu bear.

XOLE.—Olabide abogadua ez al zan geratu dan-dana berak egitekotan?

LIÑE.—Onezkerero, bankuetan bear diran agiriak, an egongo dira, burua-  
ren jaube ez dala adierazo ta agertzen.

PIE.—Ori egiña ba'da, laster dira eskubide guztiak gure gain.

LIÑE.—Onez eruan ezin ba'da, zoroetxetik bertatik etorriko dira bere  
billa.

PIE.—E gun oso bat igaro bano len etxera bialduko dabe.

LIÑE.—Gure gain dago asko. Amabostetik bein gitxienez zoraldiak joten  
dabela erakutsi bear dogu.

XOLE.—Etxe onen jaube lenengotatik egin biarko gara, Peru ori kalera  
bialduaz.

LIÑE.—Peru'gaz egin dabena ez al da gorrotoz dabillega adierazoteko  
aña, zitalkeriz dabillega erakusteko?

XOLE.—Aitak orrela etxean artzean, gure anaia dala usteko dabe.

LIÑE.—Anai? Orixe bear genduke. Ume moko ori...

PIE.—Mingain luzeak ez dira mutu lotuko.

*(PERU kaletik dator. Zurbilduta lotuten da emakumiak ikustean.  
Eztaki zelan agertu. Borondatetsu, maitekero, bigun. Baña. ema-  
kumien ixiltasanak artogatuten dau ta gero ta urduriago ta lotsa-  
tiago ekingo dautsa).*

PERU.—Arratsaldeon.

Aitari itxaroten?

Zerbait nai zenduen?

Ez al da etxian?

Deitzea nai?

Ikusi nai?

Zuekin egona da aita?

Ba'dakizue sukaldean ete dagon?

Zerbaitetan laguntzerik gura ezkerero...

Eneuke itzik egin bear?

JOB.—(*Barrutik*). Peru!

PERU.—Bai! Ba'nator.

(*Emakumiei*). Or dago. Ezer esaterik nai?

Nai ba'dozue...

(*Zurbil, lotsati, sartzen da*).

XOLE.—Lotsagabea!

PIE.—Ikusten, ume moko zistriña?

LIÑE.—Lotsagarri da au guretzat.

PIE.—Benetan, iguingarri.

XOLE.—Ume au lenengotatik jaurti bear da emendik.

PIE.—Eskubideak gure gain gelditu orduko. Lenengo erabagia orixe, nire ustez beintzat.

XOLE.—Bestiok be bardin jokatu dogu, kontixu.

LIÑE.—Zetan esanik ez.

(*Tirriña entzuten da*).

XOLE.—Telefonia!

PIE.—Bera ete da?

LIÑE.—Zein?

PIE.—Olabide abogadua.

XOLE.—Oraintxe dator ordua.

LIÑE.—(*Telefona urreratuaz*). Artuko dot?

XOLE.—Geldi! Geldi!

LIÑE.—Itanduko dogu nor dan?

PIE.—Obe ez. Berak itz egin daiala.

(*Barrero tirriña*).

LIÑE.—Etorri ezetz?

PIE.—Baietz.

LIÑE.—Eztozue ezagutzen.

PIE.—Ikusten? Bai nik igarri. Mutilla dator.

(*Destañez*). Etxeko jauna. Gure anaia.

PERU.—(*Agertu ta telefonia artuaz*). Nor da? Nor?

Pitin pitin bat, mesedez. Oraintxe deituko dautsat. (*Sukaldera juaten da*).

XOLE.—Laster dira zezenak.

PIE.—Lasturkoak.

LIÑE.—Eztaikit zegaitik, baña arratsalde guztian ba'dakizue ze pentsamentu darabillan buruan? Akerrak adarrak okerrak ditu, adarrak akerrak okerrak ditu, okerrak ditu akerrak adarrak.

PERU.—(*Agertuaz*). Zuek, aitaren partez, mesedez, urteteko etxetik.

XOLE.—Eztaukagu zetan urten.

PERU.—Orixe diño.

XOLE.—Guk diñogu, ezetz. Ez da ala?

PERU.—Nik bere eskabidea agertu dautzuet.

XOLE.—Ondo gagozala emen. (*Peru eskutatzen da*).

LIÑE.—Auxe be ikusi.

PIE.—Ikusi ta entzun.

XOLE.—Adarrak okerrak ditula. Okerrak eta zorrotzak.

LIÑE.—Ez dago Lastur'en zezenik orrenbeste dakienik.

PERU.—(*Agertu ta telefonotik izketan*). Jauna, al ba'dau, gerotxuago deitzeko.

Etxian da, bai, ementxe.

Ni nor naizen? Peru!... Bai, Peru... Semia ez... etxekua...

Zelako senidetasuna? Ee... etxekua... eztakit... emengoxia...

Bera jarteko? Itxaron, itxaron. (*Barrero sukaldera dua*).

XOLE.—Olabide ba'da ez dautsa beriala utziko.

PIE.—Bein gauza bategaz jaubetuten danian, ez ei da olakorik.

LIÑE.—Entzun dozue? Etxekua... emengoxia... Noiztik?

PIE.—Orrek, ikastekuak ondo ikasita daukaz orrek!

PERU.—(*Barrero agertuaz telefonotik*). Jauna, abogadu bategaz libereaz itz egin bear dala, diño, ta une onetan testigu larregi daukazala etxian. Gerotxuago deitzeko, edo emen egongo dala, alkarregaz aurrez aurre jardutea egokiago ba'deritxa...

Bai, jauna. Ondo da. (*Telefonoa utzi ta sukaldera dua*).

LIÑE.—Urten egin bear giñan.

PIE.—Len ezkendun ala uste.

XOLE.—Kaska gogorra da gure zarra ta oraindik argiegi dago.

LIÑE.—Igarri ete dau zerbait?

PIE.—Itzik egin barik?

XOLE.—Bere buru-gogortasuna orrek, geu emen gagozalako.

PIE.—Zetan geratzen gara orain Olabide'gaz?

LIÑE.—Bere etxera urreratuko ba'giña?

XOLE.—Lenengotatik obe ez? (*Irurak jua ten dira*).

(*JOB eta PERU agertzen dira*).

JOB.—Alabak dira irurak. Ezagutzen zenduzen?

PERU.—Emen ikusita.

JOB.—Ez dabe niretzako borondate andirik.

PERU.—Destañez begiratu dauste, arpegi asarrez.

JOB.—Zoro-zoro bizi nai dabe. Azaletik. Kanpoeder.

PERU.—Emakumiak negar asko egiten ez dakie ba?

JOB.—Orreik egin baño eragin geiago.

PERU.—Nire ama zana negarrez egoten zan gau askotan. Niri be negar eragiten eustan sarri, gaberdietan itxartu eragiñaz.

JOB.—Ezagutu zendun ñoiz gizonik beragaz?

PERU.—Bera ta ni bakarrik bizi giñan.

JOB.—Bakar-bakarrik?

PERU.—Ni eskolara juaten nitzan artian, garbiketak egiten juaten zan bera etxerik-etxe. Gero nire adizkidetasunaz poztuten zan. Alaxe, osta-osta bizi arren, alkarren-maite bizi giñan.

Beartsuak aberatsak baño zorionsuago bizi dira, ez?

JOB.—Danetara. Zoriona ez dago aberats bizitzan. Aberats nai beartsu norbere neurrian zintzo ta zuzen jokatzean baño.

PERU.—Zeu pozik bizi zara?

JOB.—Nik, ondasunetan, niretzako beste euki dot.

Bake, poz eta maitasun billa, lau zati egin ta iru alabak eta ni zati banaz gelditu giñan. Edozein biziko zan kezka barik, eguneroko lanari lotuta. Baña eurena jan ta nirea zazkildu dauste.

PERU.—Nik eneuke nai etxekalte agertu. Edonun be lan egin neike.

JOB.—Bai, mutil. Lan egoki bat billatuko dogu. Pozik eta gogoz egin daikezun lanen bat. Biar edo etsi zeurea izango dan etxe onetan zintzo bizi zaitezen, gizonak euki biar leuken maitasun, bake, poztasun eta amesetan.

(*PIE, LIÑE eta XOLE agertzen dira*).

JOB.—Barriro?

LIÑE.—Itz egin nai genduke zugaz, aita.

PIE.—Asarre barik itz egin, garrastu barik.

JOB.—Ogei urtetan ez beste zatoze egun bi oneitan.

XOLE.—Mindu egiten zara gu ikustiaz?

JOB.—Sarri gogaitu izan naz bakarrik.

Ta? Zer?

XOLE.—Bakarrik nai genduke itz egin.

JOB.—Bakarrik? Ez al gara bakarrik?

PIE.—Mutil ori emen ez dala.

XOLE.—Etxeko gora berak doguz. Geure geureak.

LIÑE.—Ez dauka zetan jakin gure arazorik.

PERU.—Sukaldera juango naz.

JOB.—Ez. Geldi, ementxe.

XOLE.—Zegaitik?

JOB.—Nai dodalako.

PERU.—Enaz asarratuko. Billatuko dot zerbait sukaldean.

JOB.—Ementxe, esan dot. Auxe da nire borondatea.

LIÑE.—Ez da egoki etxeko gauzak argitzeko.

XOLE.—Batez be zuri dagokitzuzanak.

JOB.—Etxekuak eta nireak bereak be ba'dira.

PIE.—Bereak?

JOB.—Zegaitik ez?

XOLE.—Ez dogu inñundik ezagutzen.

JOB.—Nik bai.

PIE.—Baña aita...

JOB.—Naiko da nik ezagutzea. Eta orretan gogortuten ba'zarie...

PIE.—Guk ez genkien zerbait erakusten dauskuzu.

XOLE.—Guk ez dakigun uts egiteren bat inñoz euki ba'zendun be...

JOB.—Nik? Ausartu egiten zarie esaten be? Lotsarik ba'dozue?

PIE.—Ez berotu, ba'dakigu...

JOB.—Gorrrak eta itsuak zarie?

PIE.—Eztakigu, ba.

JOB.—Eneutzuen len esan, batez be zuri, Xole? Argiago ta ziatzago itz egitea nai dozue?

LIÑE.—Guk, aita, Osagilleren batek ikusi zaitzala nai genduke.

JOB.—Zetarako?

LIÑE.—Len ez lako gauzak ikusten doguz zukan. Aldatu egin zara.

JOB.—Bizi guztian garratz eta gogor enazue etsi?

PIE.—Bai, baña orain bestelako zerbait igarten dogu.

JOB.—Bestelako zer? Aldatu ba'naz zeuok eragin daustazue. Zeuok.

XOLE.—Guk? Diñozun lez, agertu barik?

JOB.—Inñoz poztasun bat ekarten jakin ez dozuelako.

Biziten jakin ez dozuelako.

XOLE.—Biziten jakin ez?

JOB.—Zintzotasunez ez.

Bigunkeria egin dozue lege.

PIE.—Orretan guk eta edozeñek.

JOB.—Amak izaten be ez dozue jakin. Edo nai ez.

XOLE.—Orren kontua ez da zurea, gurea baño.

PIE.—Betiko mozolokeriekin zatoz. Betiko zirikadekin. Orrela ezin geinke itzik egin.

JOB.—Ba'dakit olakorik ategin ez jatzuela. Diru kontua nai dozue?

Ondasun kontua?

LIÑE.—Ez al dogu eskubiderik?

JOB.—Ondo jakiñak zagoze.

PIE.—Gu?

JOB.—Ezkontzarakuan esan neutzuen nire ondasun guztia lau zati egi-  
ten nebala. Zuek irurok eta nitzat.

XOLE.—Ta arrezkero?

JOB.—Arrezkero zer? Zuen zatiak arrak eta nirea ain zuzen be emea  
izan dalakoan zagoze?

*(Telefonoko tirriña. Job'ek artzen dau.)*

Zein?

Olabide abogadua?

Ez dautzut len adierazi libertade barik ez dodala itzik egin nai?

...Bai, Job naiz, bai... Bai, bai, berbetan nagon berbera.

Nik? Nik zer?... Zein osagillek ikusi nabela?... Ni?... Burua

galdu dodala uste? Oraindiño jauna, neure zentzunean bizi naz...

Nai dodana egingo dot, nai dodana... Ezin neikela? Ezetz?...  
Parkatu, baña Job naizena ba'dakit. Ta jakingo dozue. *(Telefo-*

*noa asarrez lagaten dau.)*

Eta Job nor dan, oraindik beste askok be jakin bearko dabe.

Zetan sartu bear dau mozolo orrek nire gauzetan?

*(Peru'ri.)* Ainbat lasterren karta au Lope notario jaunari eruan.

*(Iru lau letra egingo ditu paper baten ta gero sobre baten sar-  
tuta Peru'ri emon.)*

PERU.—Nun bizi da?

JOB.—Edozeñek esango dautzu.

PERU.—Emon bakarrik?

JOB.—Berak daki zer egin. *(Peru beyoa.)*

PIE.—Danak ikusten dabe, aita, zure-zurea ez dan zerbait dozula. Zure  
izakera aldatu egin dala.

JOB.—Oraindik askok ikusiko dabe osasunez eta zentzunez nagola.

LIÑE.—Ez diñogu ezer, baña...

JOB.—Zer, zer?

LIÑE.—Ba'dakigu gauza andia ez dala.

JOB.—Nik ba'dakit ezer ez daukadala.

XOLE.—Aintzat artzekorik ez. Baña kontu pixkat, ardura pixkat eska-  
tzen dau zure egokerak. Osasuna, beste gauza asko lez, ez da beti  
bardiri zaintzen.



JOB.—Kontu geiago eskatzen dau zuenak.

XOLE.—Ba'dakizu gaur osasunari buruz aurrerapide arrigarriak dirala.

Norberak igarri barik etorten dira sarri okerkeri asko.

PIE.—Norbera konturatu be barik, zuri jazoten jatzun lez.

XOLE.—Ta amabost eguneko osataldi batek barriztuta lagaten daki,

bestela betiko litzaken gaitzen bat.

LIÑE.—Ba'dakigu erdi asarre zagozala gugaz, baña guk zuzenduko dogu

etxeko gora bera guztia zeu etorri arte.

JOB.—Ba'dakit nora zuazen.

LIÑE.—Zure osasunaren alde.

JOB.—Zorotzat sartu nai nazue. Buru galdutzat, maniatikotzat.

PIE.—Zorotzat ez, aita. Makalaldi pixka batek ez dau ainbesterik erakusten.

JOB.—Beti izan zarie zitalak, biotzik gabekoak.

LIÑE.—Orretan zure eskolan ikasiak gara.

JOB.—Ta azkenean be... Guzurrak urtengo dautzue. Oindixek diñotzuet. Etxe onen arri bakar bat libre geratzen ba'da, arri bat bakarra bera be, ez da zuentzat izango.

LIÑE.—Gurea da, aita.

JOB.—Nirea da.

XOLE.—Borondate ori ez da zuzena.

JOB.—Zer dira zuzenak? Azpikeriak?

PIE.—Legeak lagunduko dauku.

JOB.—Ta? Zorrak jasoten, zeñek?

Eztiñozue ezer? Zorrak jazoten?

(*SIMON agertzen da.*)

SIMON.—Sartzeko baimenik?

JOB.—Artu dozu.

SIMON.—Zure jokabidea ez da legezkoa, Job.

JOB.—Zetan?

SIMON.—Kartzelan sartuko zaitue. Zu ta Muniategi. Biok.

JOB.—Biotatik bat ez da merezi bakua.

Zer da orain?

SIMON.—Etxe oneri ezarri dautzazun hipoteka ez da zuzena, ez da bidezkoa.

JOB.—Bankuaren begirako ez nunbait.

SIMON.—Ba'zenkien zorrak zenduzena.

JOB.—Nik egiñak ez.

LIÑE.—Hipoteka etxearen kontura?

JOB.—Bear danaren kontura. Al danaren gain.

XOLE.—Aita, ta...

JOB.—Zer nai zenduen? Bankuei eskiñi? Ta len baño zoroago bizi?

SIMON.—Zorrei erantzun lenengoz beiñik-bein.

JOB.—Egin ditunari eskatu.

SIMON.—Ba'dakizu arek ezin dabena.

JOB.—Kartzeletan aterpe ederrak dira. Aurretik kontuak ataratea eukan.

XOLE.—Zitala! Betiko dollorra!

JOB.—Sarritan norberak zabaltzen ditu ango atreak.

SIMON.—Zeure buruaren aurka diarduzu.

JOB.—Zer egingo zenduke zeuk nire lekuan?

SIMON.—Enaz eldu orretara.

JOB.—Ni beartu egin nazue, beartu.

LIÑE.—Olabide abogaduak konponduko dau jokabide au.

JOB.—Gizon zurra da. Ba dira zurragoak orraitik.

XOLE.—Oraindik gure-gain etorri bearako dau dan-danak.

PIE.—Gu ez al gara alabak?

JOB.—Lore igartuak lore ete dira?

LIÑE.—Odolak dakaz eskubideak.

JOB.—Odolak dakar maitasuna be. Nun da?

Baketan laga nagizue, bakarrik obeto nago.

Zuen etxetan egon lei norbait kezkaz, ume txikiak negarrez egon ez da be.

SIMON.—Gora-bera au argitu bear dogu, argitu.

JOB.—Ikustekoa argi dago.

SIMON.—Zetan geratzen gara Muniategi'ri aurreratutakoagaz?

JOB.—Ba'dauka koipea nuu kendu, lanik egin ezkeru.

XOLE.—Ezkondu giñanetik ezin dozu ikusi.

JOB.—Ezkondu ezkeroztik ez dau egirik erabilli, lengoei baketan itxita.

Ez gaitu maite izan, ez ni ta ez zu.

XOLE.—Nire barri neuk dakit.

JOB.—Obe nire eritxi au okerra ba'litz.

SIMON.—(*Muniategi atean ikusi ondoren.*) Emen bera.

Argi itz egin bear dogu, Muniategi. Sits eta bits gauzak aztertu.

MUNI.—Alaben eskuetan dago dan dana.

LIÑE.—Gure gain?

JOB.—Zer?

MUNI.—Egin ditu agiriak Olabide jaunak. Ziatz. Zertzelada guztiekin.

XOLE.—Bai? Dan-danak?

MUNI.—Oraintxe bertan Bankutik nator. Neuk itxi dodaz bertan.

JOB.—Zer da darabiltzuena?

MUNI.—(*Job'eri jaramonik egin barik.*) Iru alabetan geratu da dan dana, eskubide ta jaubetasun guztia, aitaren gaixoak irauten daberen artean. (*Xole'ri kiñu egiñaz.*) Beti.

JOB.—Arratsaldeonik be ez al dot merezi etxe onetan?

MUNI.—Zuek nai lez ekin zeinkie une onetatik.

JOB.—Ba'nekien ustela ziñala. Ba'nekien arpegi bikotxa ziñala. Ba'nekien zitara, odol gaiztokoa ziñala. Baña ez ai lotsagabea.

MUNI.—Emendik aurrerako erabagirik iñok ez dautsa onartuko. Bere gaixoa legeak ikutua dauka.

JOB.—Ni gaixo? Nor da ori baieztu leikena? Nor da orretarako ikusi nabena?

PIE.—Esaten geuntzun, aita, zerbait... zerbait makal ezagutzen zaitugula.

JOB.—Ni?

MUNI.—(*Simon'eri.*) Antxe laga dautzut, Simon, agiria, zelan jokatu jakin daizun.

SIMON.—Baña zuen eskubidien aurretik gauzak okertuta dagoz.

Bankuko diruak eskutatu ziran ta etxe onen gain hipoteka bat sartua da, diñozuzan agiri orreïn aurretik.

MUNI.—Alaben eskubideak oso osuak dira. Ez dauke dudarik.

SIMON.—Zer erabagiteko? Jatekoak jan ondoren, zetarako ortzak?

MUNI.—Zer?

SIMON.—Ez dozu ulertu?

(*LOPE ta PERU agertzen dira.*)

JOB.—Poztuten nau zuen etorrerak.

LOPE.—Danok batzarrean? Ez nator ordu egokian?

JOB.—Ezin garai obean. Etxean zagoz.

MUNI.—Zetarako?

Gaixo dagon agiriak bear dan tokian erakutsiak dira, Lope. Ori jakiten ba'zatoz, ikusi, ikusi.

JOB.—Latsagabe...!

Bera ta zuek, diruagaitik dana salduko zenduken alabak!

PIE.—Danon onagaitik gabiltz.

JOB.—Danona? Zeintzuna?

(*Irriz.*) Uste zenduen lo egongo nitzala?

XOLE.—Eztautzugu ukatuten zurra izan zarianik. Zurregia batzutan.

JOB.—Eztakizue ormak be itz egiten dabenik?

Gogorik onenagaz asi nitzan zerbait egin guraz.

LIÑE.—Ikusteko dago ainbesteko gogo on ori.

JOB.—Agertu nai dozu, Lope, ze asmo nerabillan?

LOPE.—Lau berbatan. Dan dana ziatz-ziatz aztertu, batu ta argitu.

LIÑE.—Zetarako?

JOB.—Zetarako? Jarraitu, baimena dozu.

LOPE.—Agura zarren etxe bateko egokera ordaintzeko truke, dan dana iru alaboi lenengotatik eskintzeko asmotan.

Orretarakoxe deitu neutzuen iruroi. Orretarakoxe.

LIÑE.—Etzendun olakorik adierazi.

JOB.—Nire guraria igarri ta ezagutu baño len lotsagabekeriz azi ziiñen.

PIE.—Gu?

XOLE.—Ori ez da egia.

JOB.—Zuen asmo ta gurariak, zuen barru-barrutik urtendako biozkadak, «biozkadak», egunean bertan jakiten nebazan.

XOLE.—Agiri da gaixo zagozena. Amesak egi biurtzen dozuz. Gurariak egite, osotu ta aurrera eruan baño len.

JOB.—Ames?

Nik esanak egiak ez ba dira, nai dozuez zuen esanak entzun? (*Orma baten dagon kuadro bat altza ta magnetofono bat agertuko da. Lenengo ekitaldian emakumiak bákarrrik egozala artutako zatia entzuteko eran ipinten dau. Emakumiak eta danak zurbil dira. Pie'n abotsa entzuten da: «Zegaitik ez dautsagu deituten Olabide abogaduari? Geroxeago Xole'k: Bereak ete dira etxeko ondasunak?» eta abar. Bakoitzaren abotsa entzun-ala, irritsu alabák salatuten ibilliko da.*)

Ezagutzen zara, Pie?

Garbi ez dago zure abotsa, Liñe?

Ainbesteko zital zeu, Xole, ez?

Mingarri da, Muniategi, tartean zeu ez egotea. Obetuago ezagutzeko aukera izango neban.

SIMON.—Senitarteko gora-berak ardura gitxi biztuten dauste.

JOB.—Ikusten dozue zelan nekien zuen barru barruko txikikeri guztia?

PIE.—Zortzirak. Etxean zain ditut onezkero.

JOB.—Egon, egon... Erlojua len lez dabil.

XOLE.—Nik be jua nai neuke.

JOB.—Eztaukazu emen zure senarra?

Lotsatuten ikasi dozue?

Enaz gaizto izango. Dana parkatzen dautzuet.

LOPE.—Ba'nekien, Job. Ezagutzen zaitut.

SIMON.—Bankuak be aztuko leuke. Baña aurrez erabagi bearko da zer-bait. Letra orren dirua nunbaitetik atera bear da. Zorra zorra da, Luzetu bear ba da luzetu, baña...

JOB.—Ez bildurdu. Ez kezkatu, Simon.

Nik ezagutzen ez nituzan zorrak... beingoiz jasoko dodaz. Baña garbi geratu daiala nik egiñak ez dirala.

SIMON.—Alegiña egingo da. Ta beste baten, premiñan egon ezkerro be...

JOB.—Ez, ez. Nireak amaitu dira. Sasoi txarra daukat gaurko giro epel eta errezaeren erpetan jausteko. Gaurko emekerietan sartzeko.

LIÑE.—Aldi bakoitzak bere giroa eukiten dau, bere bizikera. Orixe ez dozu ikusi nai.

JOB.—Baña giro guztiak zintzotasuna bear dabe. Zintzotasuna.

Nik lengo erara bizi nai dot. Diru ta arrokeriaren gain, lotsa ta zintzotasuna.

Etxea hipotekan sartu ba'dot, zuen zorrak ordaintzeko egin dot. Hipoteka ori nire eskabidez egiña da, ez iñoren indarrez. Ta asmo zuzen bateri indarra emoteko. Ez al da orrelaxe, Lope?

LOPE.—Biozkada bat izan da benetan.

JOB.—Orañartekuak ordainduko dira, nai ta azpikiriz egiñak izan. Nai ta lapurretako ezaupidez egiñak izan, nai ta nire kontzientziak, gero, ainbeste egiteko eskubiderik enebala agertu erazi. Orren bildur naz benetan.

MUNI.—Ori ezin esan lei.

JOB.—Agirian dagonik ukatu lei? Ala zein da emen gaixo?

PIE.—Ta etxea?

JOB.—Etxearen eskubidea kendu nai izan dot, asmo Iarregirik artu ez daizuen. Etxe onen jaube barria agertu nai dautzuet. (*Peru bere ondora eruanaz.*) Aitatasunik ^abeko Peru.

XOLE.—Zoro zagoz, aita.

LIÑE.—Ori ezin lei.

PIE.—Ezin dogu ontzat artu, ezin, ezin.

MUNI.—Maltzurkeria, azpikeria da ori.

LIÑE.—Nundik norako dirua Peru'k? Zure konponketa lotsagarria da ori.

PIE.—Gure diruak dira emen dabizenak.

LOPE.—Notario naizenez agertu neike zuen dirurik ez dala bitarteko.

LIÑE.—Notario batek esan da be ezin dogu sinistu.

LOPE.—Zuen aukeran dozuez agiriak. Ba dakit Job adiskideak, mutiko au etxerako artu ebanian, iñoren erruren bat zuzenduteko asmo-tan artu ebalá, bestelako asmo ta aztarren barik.

MUNI.—Errua dabenak zegaitik ez dau bereganatu?

JOB.—Ain arin aztuten jatzuz ibillerak?

LOPE.—Mesedez, Muniategi. Dana parkatzekotan jarri dancetik, obe zenduke bein ixildu ta makurtu.

JOB.—Bidezkoa ete da parkamena egokera onetan?

LOPE.—Ez zaitte atzeratu, Job. Ondorengo onak arinkerri au zindotu lei. Guazen lengora. Mutil onek osaba aberatsa dau. Ez ekien orain-tsu arte. Bera ta ni adiskide giñan gaztetan. Alkarrekin ikasiak. Adierazi neutsan zuen aitaren jokabidea, batez be il jakon amari laguntzen. Ta gero, gauzak okertu diranean, ikusten dozuezan zuen etxeko gora-berak agertu diranean, lenengotatik itsu-itsu agertu da bere arrebaren eta bere illobaren laguntzarako ain biotz onez jokatu dabenaren alde.

JOB.—Bera izan ez ba litz, nik parkatuta be, beti zorpean bearko zenduen. Ez nitzan elduten nire ondasunekin agertu diranak estaltzera.

XOLE.—Bana aita...

LIÑE.—Gure eskubideak..,

JOB.—Ohorea galtzen danean eskubideak illak dira.

LIÑE.—Kalian geratzen gara gu?

XOLE.—Beti diñodazan gure eskubideak, zer? Gure legea, zer?

PIE.—Esku uts utsik lagaten gaituzu?

MUNI.—Arri bakar baten eskubideari be ten egingo jako, Xole.

JOB.—Oraindik setatsu zurean, guzurti ori?

MUNI.—Itz ori ariñegi darabiltzu, ugariegi.

JOB.—Parkatzen ba dakit, baña aztuten ez.

MUNI.—Alaben ondasunak jatean lapurra izan zariala esango ba neu, nik?

LOPE.—Ixildu bear ziñake, Muni.

JOB.—(*Minkor*). Ni... ni... lapurra?

MUNI.—(*Lotsagabe*). Ta ni bai?

JOB.—Ukatzeko adorea daukazu lotsaz mututua bear ziñaken orrek?

MUNI.—Zegaitik ixildu?

XOLE.—Baretu, Muni.

PIE.—Ixildu zeu be, aita.

LIÑE.—Zure bidegabekeririk eztozu autortu nai.

**JOB.**—Ori da zuen erantzuna? Zuen eskerra?

Ta ixilduteko? Suari eraginda gero ixildu?

Ez! Ez! Enaz ixilduko. Era onetan ixilduko ba nitz, nire bizi guztia, nire izate berbera ezetsiko neukez. Ta ori ez! Ori ez!

**MUNI.**—Ez ba, ori ez! Emen eztago norberaren naia besterik. Ez alabarik, ez legerik.

**JOB.**—Nire etxetik kanporatu zaitetz lenbailen lapur ori.

**MUNI.**—Notario jauna, testigu izan bearko zara egunen baten.

**XOLE.**—Mesedez, mesedez...!

**JOB.**—Lapurra bai. Lapurra, emakume bateri garbitasuna ostu zeuntzanean.

**XOLE.**—Ezin esan ziñei olakorik, aita.

**JOB.**—Lapurra... zure zatarkeriko frutuari aitatasuna ukatu zeuntsanian.

**XOLE.**—Zoro zagoz, aita.

**LIÑE.**—Ixildu bein, aita.

**JOB.**—Lapurra... alabari biotza eskatu zeuntsanian, etziñan eta etzandun izate ta nortasuna erakutsiz.

Lapurra... niri itz bakar bat zuzendu barik, eskabide motz bakar bat egin barik, nire izenpea guzurtatu ta berreun milla peseta seguru asko lizunkeri ta ordikerietarako...

**MUNI.**—(*Itsu, Job'en gain*). Ixilduko zaitut betiko. Betiko!

(*Job'eri paparretik oratu ta jo naian.*)

**PIE ta LIÑE.**—Muni! Muni! Ori ez. Geldi! Mesedez! Ori ez!

(*Simon eta Lope sartzen dira banandu nairik. Xole zaratáka negarrez. Peru danen artetik sartu ta Muni'ren aurrez aurre, zamatik oratuaz.*)

**PERU.**—Zeuk bera baño lenago ilko zaitut neuk. Neuk lenago! Neuk ilgo zaitut!

(*Txilio, garraxi, estutasun, negarra. Batzuk bestiak baretu eziñez.*)

**PERU.**—(*Kiriotsu, negarti, Job'en ondora urreratuaz*). Jauna! Jauna! Zu biziko zara. Ez koldartu. Biziko zara. Neuk lagunduko dautzut. Neuk.

**JOB.**—(*Peru besarkatuaz*). Mutil! Eskerrak! Eskerrak!

Eskutuko bat neukan zuretzat... Sekula ez dautzut agertuko. Enaz zure aita... baña gaurtik semetzat zaitut. Semelzat.

Bizi bear dozu, bizi... zintzotasunean. Biozkada bat egitera bear-tuten nazu.

Etxe au, aurrerantzean, aitatasuna ukatuta jayoten diran ume errukarren etxea izango da. Iñoren eskubiderik ez da izango beragan. Ta nire alabak... gaurkoak estaldu ta parkatuko ba dira... ondorenik ez dabenetik, etxe oneri zordun izango dira, notario jaunak erabagiko daben eran.

**XOLE, LIÑE ta PIE.**—Baiña aita... Aita!

**JOB.**—Legea lege. Esana, lege.

A M A Y A

Agustin Zubikaray.